

## **KRONIKA - GOGOETA - KRITIKA**



### **JOSEBA JAKAREN OMENEZ ETA OROIMENEZ**

#### **PLANGINTZAREN INDARRA**

1996ko apirilaren 16an hil zen Joseba Jaka, euskal kulturgintzako enpresari ekimen handikoa eta bizkorra. Hiru urteren buruan, gutxi gora-behera, gaitasun beretsuko hiru egile eta eragile kementsu eta azkar galdu ditu euskal kulturgintzako munduak, hirurak kulturako enpresariak eta euskalgintzako militante sutsuak: Joxemi Zumalabe (1993ko urtarrilean), Klaudio Harluxet (1993ko abenduan) eta oraingoan Joseba Jaka.

Hain zuzen ere, Josebaren oroitzapenez eta omenez esandakoek eta idatzitakoek gauza bat nabarmendu dute batez ere harengan: militantzia eta profesionaltasuna, aldi berean. Amets luzeko gizona zen, euskal kulturaren negarraldiak gainditu eta garaipen-aldia amesteko; ideia ugariko burua zen, ametsetako helburuari begira ideia praktikoak sortu eta sortarazteko; ideiak proiektu bihurtzeko makina zen, eta buruko ordenadorea beti martxan omen zeukan; proiektuak obra konkretutan, erakunde bizitan eta enpresa bizkorretan gauzatzeko eta burutzeko motorea zen. Eta ametsen, ideien, proiektuen eta enpresen zirkulua itxi gabe, beste bat irekitzen zuen, ideia berriak sortu eta proiektu berriak asmatuz eta enpresa berriak erai-kiz, kiribilaren dinamikan aurrera. Eta beti lanean: talde-lanean eta elkar-

lanean bere hurbileko lagunekin eta mota eta joera askotako beste jendeekin, hainbat lagunek azpimarratu duen bezala.

Euskal kulturgintzako mundutik sorturiko ekimen garrantzizkorik azaltzen zen ia leku denetan han zegoen Joseba Jaka, bere ekintzaz ekimena bultzatzeko prest. Horietako bat 1996ko otsailaren 24koa izan zen, Donostiako Miramar Jauregian egindako bileran, non euskal kulturako hainbat sektoretako lagun ugari bildu baitzen, euskalgintza-kulturgintzen oraingo egoera-dinamikak aztertzeko, eta orain arteko sakabaketa gaindituz, aurrera begira bilgune zabala eratzeko. Helburuak: Euskal kulturgintzaren alorreko arazoei buruz denon artean gogoeta eta azterketa egitea eta pentsamendu baterakoia lantzea, gizartean eta erakunde publikoetan benetan nola eragin ikustea, erakunde publikoei euskal kulturaren politika berria eskatzea, eta guztiaren buruan, euskararen berreskurapen osorako, bereziki berreskurapen kulturalerako, plan estrategiko edo plan orokorra egitea eta eragitea. Joseba Jakak ez zuen hitzik egin bilera hartan; bilera aski teorikoa izan zen, eta Joseba ez zen teorilari handietakoa, baina erne eta adi egon zen; eta ziur egon gaitezke, bilera luze eta jendetsu hartatik berak atereak zituela ondorio praktikoren bat baino gehiago eta euskal kulturgile haien kezkei erantzuteko proiekturen bat baino gehiago egosten hasia zela, bilera amaitu orduko. Agian arrazoi gehiago aurkitu zuen berak lehendik buruan eta esku artean zeramatzen proiektu eta enpresak aurrera eramateko, edo berriren bat abiatzeko. Handik hilabete t'erdira hil zen; baina haren ametsak, ideiak, proiektuak eta enpresak ez dira hil; ezta haren laneko filosofia ere: militantzia eta profesionaltasuna, plangintza zorrotzari loturiko lanean.

Plangintza, eta planifikaturiko helburu-helpeidei lanaren indarrez eustea zuen Josebak bere filosofia eta jokabidea: Luzarorako plangintza (estrategia), epez epeko helburu taktikoen arabera planak eta programak egitarauak eginez, urratsez urrats betetzekoak. Eta lorpen taktikoak oinarri bihurtu, hurrengo faseko programa aurrera eramateko, beti helburu estrategikoari begira.

Lanaren eta ekintzaren eredutzat erretratatu izan du batek baino gehiagok Joseba; «egin egin behar da»: bere esaera hori goiburua zuen berak, ez ekintza itsuan eta eginbeharraren eginbeharrez eta eginahal hutsez zerbait aterako zela uste zuelako edo, inguruko zalantza alferrak uxatzeko eta zorrozki landuak zituen planak aurrera eramatean sortzen zitzaizkion zailtasun eta eragozpenak gainditzeko baizik. Plangintzak dituen arauak bete eta horrek eskatzen dituen urratsak bata bestearen ondoren egin behar horretarako: egoera-dinamiken azterketa, helburuak ondo zehaztea, egin beharreko urratsak (taktika) eta epeak markatzea, baliabideak (helpeideak) ondo neurtu eta ipintzea, emaitzen kontrolak egitea.

Euskararen berreskurapen osorako eta normalkuntzarako plangintza orokorra eskatu izan diegu urte luzetan erakunde publikoei. Badirudi euskalgintzako eta euskal kulturgintzako indar sozialek, erakunde publikoei eskatzeaz gain, beren eskuetan hori hartu eta horri heltzeko prest

daudela; aldi berean badirudi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordea jabetu dela plangintza orokorraren premiaz, eta horri oratzeko asmotan dela. Egin beharreko bide honetan, Joseba Jakak euskal kulturaren oso sail garrantzizkotan, bereziki, liburuen, disken eta komunikabideen sailean beste hainbat lagunekin batera elkarlan estuan irekitako bide ereduzkoa izan daiteke denontzat.

### **AEK-REN IX. MINTEGIA**

Martxoaren 21etik 24ra AEK bere IX. Mintegia egin zuen «Herri ekimena bultzatuz, Euskal Herria euskaldunduz» mezuarekin. AEKren Mintegi honek zenbait gogoetarako bide ematen du.

AEK herri ekimena indartu beharrean jarri du enfasia Mintegian, Euskarak urteotan eman dituen urratsak eman baditu, herri ekimenaren lanari, borrokari eta agerpenari esker izan da eta aurrera ere beharrezkoa izango da herri ekimena indartzea urrats berriak egin nahi baditugu. AEK, herri ekimena indartu behar dela esan duenean bi alde hartu ditu horren barruan; bat, Euskal Herriaren berreuskalduntzeak behar duen herri ekimena indartu egin behar da; bi, AEKn bertan herri dinamika indartu egin behar da.

Bigarren ikuspegia hartuta, egin dezagun analisi txiki bat. AEKren IX. Mintegiak 400 lagun bildu zituen Zestoan lau egunez (Zestoako eztabaidak 400 lagun bildu bazituen ere, 1995eko irailean Mintegirako oinarritzko txostena euskaltegietara iritsi zenetik askoz ere jende gehiagok hartu zuen parte eztabaidan; gainera eztabaida dinamikoa izan zen, emandako datuek adierazi dutenaren arabera: 300dik gora emendakin aurkeztu eta aztertu dira euskaltegiz euskaltegi) baina 400 AEKkide hauetatik ia denak irakasleak izan ziren.

AEKkide dira ikasleak, irakasleak eta laguntzaileak (AEKren proiektuarekin bat egin eta bere garapenean laguntzen duten guztiak) baina AEKren ezinetako bat irakasleez gaindiko erakundea izatea da egungo errealitatean. AEK herri ekimeneko proiektua da eta herriaren parte hartzea ezinbestekoa da bere alternatibaren garapenerako, eta irakasleez gaindiko erakundea egitean du bere erronkarik nagusienetakoa.

Hau oso inportantea da. Argi dugu AEK herri ekimeneko mugimendua dela. Argi dugu herri ekimenaren proiektua garatzeko indarra behar dela. AEKk gizarteratu duen alternatiba eta proiektuaren garapenak oso dinamika indartsua eskatzen du eta egunero bere klaseak eman behar dituen irakasleak bestelako laguntza ere behar du bestela mugatuta senti daitekeelako. Eta laguntza behar du bi zentzutan: batetik, markatzen den dinamika aurrera eramaten; bestetik, AEKren proiektua ikasleei euskara irakastea baino gehiago dela gogorarazten.

## **EKBK ESTATU ESPAINARRA SALATU DU NAZIO BATUEN ERAKUNDEAN**

### **EKBK ERA BEREAN EUSKARAREN LEGEA ALDATZEA ESKATU DU**

Orain hilabete gutxi INEMek Fredi Martin gasteiztarra langabezia subsidiarik gabe utzi zuen, gestioak euskaraz egitea eskatzen hasi zela eta. Gazteak auzitegietara jo zuen eta, auzia nola joan zen ikusita inork espero ez bazuen ere, egunotan epaileak arrazoia eman dio INEMi, besteak beste, Euskararen Legean esaten direnak «berehala» betetzekoak ez direla eta legeak euskalduntzea «progresiboki» planteatzen duela argudiatuz.

Hamahiru urte dira Euskal Autonomia Elkartearen Euskararen Legea onartu zela eta hamasei Estatutua indarrean jarri zela. Teorian oinarritzko bi lege hauek hizkuntz eskubideak babesten dituzte, baina praktikan eguneror urratzen dira eskubide horiek.

Horren aurrean EKBk (Euskal Kulturaren Batzarrea) Eusko Jaurlaritzari euskararen lege proposamen berri bat presta dezan eskatu dio, Eusko Legebiltzarrerara bere onarpenerako bidalia izateko. Hamahiru urte t' erdi haue-tako esperientziak erakusten duen bezala, gauza askotan da aldatu beharrekoa Euskararen Legea, hala ere EKBk bi puntu azpimarratu ditu: alde batetik, legearen garapenerako ez da inolako xedapenik egon, legeak ezartzen dituen betebeharreri epe zehatzak finkatzeko eta bestetik, legeak aurrikusten dituen eskubideak bermatzeari begira ikuskaritza atal bat sortzea, ahalmen exekutibo bereziaz.

Eskaera honetaz gain, EKBk, apirilaren 29an Geneven (Suitza) estatu espainiarra salatu zuen Nazio Batuen Erakundeko «Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Komitearen» aurrean, Hego Euskal Herrian etengabe gauzatzen duen hizkuntzaren zanaketa onorioz, hainbat eskubide indibidual eta kolektibo urratzen ditu eta.

Komite hori 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna zaintzeko sortu zen, eta estatuen diskriminazioak aztertu ohi ditu. Komite hau egun, mundu osoko hogeita bost adituk osatzen dute.

Komite honen aurrean, estatu desberdinak bost bat urtetik behin agertzen dira. Estatu horietako Erakunde Ez-Gubernamentalek (EEG) hala eskatuz gero euren salaketak tarteratzeko bertan izaten dute aukera. Estatu espainolaren aurrean eta hizkuntz kontutan aitzindari gisa —orain artean problematika hau ez baitu inortxok ere horra eraman— aurtengoan EKB azaldu da.

Aurtengoan Estatu espainolari agerraldia maiatzaren 1 eta 2an suertatu zaio. Espainolak, atzerapena eskatu bazuen ere, azkenean egun horietan agertu ziren euren txostena aurkeztuz, hizkuntzaren gainean txintik esan ez bazuten ere, Filipinas eta Egiptoko ordezkariak gai horri buruz luzatu zizkieten galderak erantzun gabe utzi zituztelarik.

EKBk hamasei orrialdetako txostena aurkeztu zuen, bertan bereziki salatzekoak diren 64 kasu hiru atal nagusitan bilduz: komunikabideak (funtsean estatuaren telebista publikoen euskararekiko joera guztiz diskriminatzailea salatu da), justizi administrazioa (epaile izateko euskara kontuan ez hartzea, euskaldunok jasaten ditugun bazterkeriak, eta epaileen beraien hizkuntzarekiko begirune eza) eta estatuko administrazio periferikoa (hemen sartzen da Gasteizko INEMek Fredi Martin gazteari eginiko diskriminazio latza).

EKBk oso positiboki baloratu du Geneveko agerraldia. Alde batetik, Euskal Herrian hizkuntz eskubide kolektibo eta indibidualen egoera ezagutzera eman delako, eta bestetik hizkuntz zanpatzeagatik, eskubideak urratzean estatu espainarraren jokabidea lehenengoz salatu delako.

Izan dugun harrera ikusita, argi dago oso, benetako garrantzia duela nazioartean gure hizkuntzaren egoeraren berri zabaltzea eta, ahal den neurrian, hizkuntzaren ofizialtasunaren harrezagutzeaz, Euskal Herriaren normalkuntza prozesurako kanpoko babesa lortzea. Nazio Batuen Erakundearena kasu honetan.

Garrantzitsua da nazioartean gure hizkuntzaren egoeraren berri zabaltzea eta, ahal den neurrian, Euskal Herriko hizkuntz normalkuntza prozesurako kanpoko babesa lortzea, Nazio Batuen Erakundearena kasu honetan. Hala ere, laguntza horren ahalmena ezin da handietsi: hizkuntz normalkuntzaren soluziobidea ez baita kanpotik etorriko, hemengo administrazio, gizarte erakunde eta herritarren esku baitago. Zoritxarrez, administrazioak ez dira behar bezala jokatzen ari: estatuaren administrazioa oztopatze lan izugarrian dihardu eta administrazio autonomikoak oso epel ari dira jokatzen, gizartearen beraren inizatiba eta jarreraren atzetik ia beti.

Orain ere dinamika sozialaren garrantzia azpimarratu beharra dago, gizartearen eraginez etorriko baitira aurrerapausoak, esperientziak hala erakusten duenez.

Esperientzia berri hau arretaz irakurri eta ostean, argi geratu beharko litzaiguke, NBEak babak eltzetik aterako dizkigula pentsatze hutsa erroera litzateke, ekin beharra gure herrian dugu eta.

Han ere jo behar den arren...